

Ordizian, 2016ko apirilaren 11n, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras
Mila Sukia Galparsoro
Iñaki Dubreuil Churruca

EAJ/PNV
Ordizia Orain
PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Igor Eguren Izagirre

Ordiziako EH-Bildu. Ezin etorria adierazi du.

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

Gonbidatu gisa azaldu da baita ere IRABAZIren ordezkaria den Carlos Gonzalez Astiz.

EGUNEKO GAIEN ZERRENDIA:

- 1.-2016ko martxoaren 7ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza Batzordea GKEren proiektuaren zuriketa.
- 4.- Basque Culinary Centerrekin hitzarmena.
- 5.- Peoien lanpoltsa.
- 6.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturei buruzko informazioa.
 - Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren finantzazioa.

GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIK:

.- Udal Kontuhartzailearen ingera, Goierri Herrien ekintza Fundaziorako Udalak sustatuko duen finantzaketari.



ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16.30



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2016ko martxoaren 7ko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko martxoaren 7ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 16. zerrendaren berri ematen da, kopurua: 50.392,86

.- 18. zerrendaren berri ematen da, kopurua: 76.122,26

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza Batzordea GKEren proiektuaren zuriketa.

Dubreuil jn.

Azaldu du proiektuaren zuriketa eta fakturekin arazoren bat dagoela.

HEGOAra bidaltzea erabaki da, proiektuei buruzko informazioa ematen duen enpresara.



4.- Basque Culinary Centerrekin hitzarmena.

Alkate jaunak jakinarazi du duela bi aste bilera izan zuela BCCrekin. Jose Ignacio Iturrioz jauna ere bertan egon zen. Proiektuak ikasleen urteroko erreleboak proposatzen ditu, eta Alkate jaunak eta Iturrioz jaunak uste dute errelebo osoa ez dela ona, baina bai errelebo partzial bat.

BCCk proiektua utzi nahi du bere irudiari kalte egin diezaiokeela uste duelako.



Alkate jaunak proiektuarekin jarraitzeko eskatu die. Nolanahi ere, hitzarmena 2015eko maiatzean sinatu zen 4 urterako. Orain proiektua uztea eta hitzarmena etetea ez da egokia, oraindik urtebete igaro ez denean, Udalak gutxi gorabehera 400.000 €ko inbertsioa egin zuenean.

2015eko ekaina-abenduko kontuen balantzearen aurkezpena, Udalarentzako 10.000 € 5.000 €ko irabaziekin eta BCCrentzako 5.000 €ko irabaziekin. Amaitu gabeko ekitaldia da.

Baserriaren goiko aldea aterpe edo ostatu turistiko gisa erabiltzeko aukera proposatu dute, baina horretarako behar den inbertsioa Udalak egin dezala eskatu dute.

Dubreuil jaunak adierazi du Oiangurenen martxan jarri diren proiektuetatik (natur eskola, golf kantxa, orain BCCrekin hitzarmena) bakar batek ere ez duela espero zen emaitzarik eman.

Hitzarmena betetzeko eskatu behar zaie.



5.- Peoien lanpoltsa.

Alkate jaunak jakinarazi du azkenaldian jendeak kalean gerarazi duela peoien lanpoltsari buruz galdetzeko.

Berak uste du indarrean dagoen lan-poltsa aspaldi egin zela eta ez dela hainbeste jende geratzen lan egin dezakeena.

Beharbada beste lan-poltsa baten deialdia egitea pentsatu behar genuke, eta aldizka egin, urtero edo bi urtetik behin.



6.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- 6000 €tik beherako fakturei buruzko informazioa.

Batzordea jakinaren gainean dago.

.....

.- Goiekiko Batzordea, 2015.03.22koa. Sukia andreak Administrazio Batzordean aztertu ziren gaien buruzko informazioa eman du.

.....



Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren finantzazioa.

Goierri Herrien Ekintza Fundaziorako Udalak sustatuko duen finantziarioari Udal Kontuhartzaileak egindako ingeraren berri eman du Alkate jaunak.

Sukia andreak Kontuhartzailearen txostenaren kopia eskatu du.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

4.- Galde-eskeak.

Ez dago.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.